

Gipuzkoako Bazkondeak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak *Blockchain* teknologia enpresan nola aplikatu azaltzeko jardunaldia antolatu dute

Donostia - 2018ko maiatzaren 23a - Gipuzkoako Bazkondeak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak, SPRI eta Miramon Enpresa Digitalarekin batera jardunaldi dibulgatzaile bat antolatu dute **"Blockchain teknologia ezagutu eta zure enpresan nola aplikatu ikasi"** izenburupean. Jardunaldia gaur, asteazkena, burutu da Donostiako Miramongo Parke Teknologikoko Auditorioan eta 200 pertsonatik gora izan dira bertan.

Jardunaldia "Gipuzkoa Teknologikoa"ren hamaseigarren edizioan barneratzen da eta enpresei zuzendua egon da, eta hauei *Blockchain* teknologia zer den ezagutu araztea izan du helburu: *Blockchain* teknologia nola dagoen orain, bere abantailak, aplikazio ezberdinak, eta ekonomia nola eraldatuko duen erakutsi. Adituen arabera, *Blockchain*-ak etorkizunean sektore guztietan izango du eragina eta egungo negozio modelu guztiak eraldatuko dituen funtsezko teknologia batean bihurtuko da.

Jardunaldian, **Santiago Márquezek**, Barrabes Taldeko CTOak, **Óscar Guadillak**, Eusko Jaurlaritza Informatika Elkarteako – EJI Eko Zaintze teknologiararen arduradunak, **Cristina Carrascosak**, DeyLexeko bazkideak, **Mária Pargak**, Alastriako presidenteordeak, **Óscar Lagek**, Tecnaliako Head of Cyber Securityak eta **Goio Manriquek**, HAZI Fundazioko Informazio Sistemen eta Laguntza Institutuzionalaren Unitate Zuzendariak parte hartu dute eta gogora arazi dute *Blockchain* teknologiak datu digitalen transferentzia egiteko aukera emango digula oso sofistikatu izango den kodifikazio baten bitartez eta oso modu ziurrean.

Blockchain teknologia parte hartzaile batzuen artean banatzen den sekulako datu basea da, bitartekariak bertan parte hartzen ez dutelarik. Eta hori da hain zuzen hizlariak azpimarratu dutena, teknologia honen potentziala hortan datzala: egiaztapena behar duten salerosketak egiteko modua aldatu, azkarragoak, ziurragoak eta merkeagoak eginez, eta bitartekariak kenduz sistema deszentralizatuagoa eginez.

Gipuzkoa Teknologikoa

"Gipuzkoa Teknologikoa" programa 2003an sortu zen. Gipuzkoako Bazkondeak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera urtero hiru jardunaldi antolatzen ditu. Jardunaldi hauetan informazioaren eta komunikabideen teknologien erabilpenarekin erlazioa duten gai ezberdinak jorratzen dira: interneten segurtasuna, tresna hauek negozio katea hobetzeko eskaintzen dituzten aukerak, Gauzen Interneta, Big Data, 0.4 Industria...



CAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

Nota de Prensa

Laguntzaileak

Antolatzaileak



Informazio gehiago nahi izanez gero:

Irune Bengoetxea

ibengoetxea@camaragipuzkoa.com

943 000 310 / 688884347